

Ezpalak

GORKA BEREZIARTUA

Elaudi taldeak zuzeneko diskoa grabatu zuen joan den asteburuan Muskildiko (Zuberoa)

San Antoni kaperan. Taldearen hirugarren diskoa izango da, aurretik kaleratutako *Iluntzean* eta *Gauak balaki* lanen ondoren.

Estilo desberdi-

nak nahastu izan ditu Elaudik bere hamar urteko ibilbidean, folketik abiatuta fadoa, Kubako doinuak eta Afrikako maliar blueseraino.



Maurice Ravel musikagile eta piano jole ziburutarra omenduko dute heldu diren asteetan bere sorterrian. Aurten beteko dira 70 urte Ravel hil zela eta horregatik kontzertuak, mahai-inguruak, erakusketa eta ikastaroak izango dira, besteak beste.

Massive Attack Bristolgo taldeak Barakaldoko BECen kontzertua eskainiko du irailaren 13an. 90eko hamarkadan Inglaterrako trip hopa mundura zabaldu zuen taldeak datorren urtearen hasierarako prest izango du *Weather underground* izeneko zortzigarren diskoa.

Andre Masson artista frantziararen 50 obra bildu ditu BBK-k Bilboko Kale Nagusian duen aretoan zabaldu berri duten erakusketak. Massonek 36ko gerraren aurreko urteetan Gironako Tossa de Mar herrian biziz zenean margotutako edota Frantziara itzuli zenean amaitu zituen obrak dira. Erakusketa urriaren 11ra arte egongo da zabalik.

Petti bakarlari beratarrek aurki kaleratuko du *On* izeneko disko berria. Lana bi zatitan banatuko du musikari nafarrak: akustikoa alde batetik eta elektrikoa bestetik. Pettiren laugarren bakarkakoa izango da eta hainbat musikariren laguntza izan du beratu osatzeko, Joseba Irazokirena besteak beste. Hain zuzen ere Irazokik hiru disko argitaratu berri ditu kolpean: *Pertsona*, *Akordeoi orkestra* eta *gitarra kontzertua DO-n* eta *Dosi* dute izena beratarren lan berriek.

Donostiako Zinemaldiaren motorrak berotzen



Hilabete eskas falta da Donostiako Zinemaldiak ateak zabaltzeko. 55. edizio honetan Paul Auster idazle eta zinema zuzendaria Donostian izango da, Zinemaldiko epaimahai-kide izango baita. Gainera, estatubatuarrek *The inner life of Martin Frost* filma lehiaketatik kanpo aurkeztuko du. David Cronenberg zuzendari kanadarrak zabalduko du aurtengo edizioa, *Eastern promises* filmarekin. Guztira 19 pelikula lehiatuko dira Sail Ofizialean tartean Nick Broomfielden *Battle for Haditha* eta John Saylesen *Honeydripper*, besteak beste. Zabaltegi sailean hamasei zuzendari berriren lanak ikusi ahal izango dira aurten. Gainera, Philippe Garrel zuzendari frantsesari eta Europa iparraldeko zinema berriari eskainitako atzera begirakoak izango dira. Informazio gehiago www.sansebastianfestival.com gunean.

Euskal Herriko bost talde izango dira Tarregako antzerki jaialdian

DEABRU BELTZAK, Taun Taun Teatroa, Kukai Dantza eta Logela Multimedia, Trapu Zaharra eta Iñaki Mata euskal konpainiak izango dira Tarregako Fira Teatre al Carrer kale antzerkiko aurtengo jaialdian. Deabru Beltzak antolatzaileek gonbidatuta joango da eta beste laurak Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak sustatutako Euskal Teatroa ekimenaren barruan. Jaialdia irailaren 6tik 9ra egingo da. Informazio gehiagorako: www.firatarrega.com.

Disonancias ekimenean parte hartu nahi duten artistentzako epea zabalik

URRIAREN 9RA bitartean zabalik dago Disonancias plataformaren deialdia, nazioarteko artistek Euskal Herriko enpresa eta zentro teknologikoekin elkarlanean ikerketa proiektuak gara ditzaten. Parte hartzeko baldintzak plataformaren web gunean (www.disonancias.com) eskuratu ditzake interesa duenak. 2007-2008 edizioan bederatzita ikerketa proiektu osatu dituzte. Aurkeztutako artisten artean aukeraketa egingo dute urriaren 15etik 30era bitartean. Horren ondoren berriz bederatzita hilabeteko lankidetzari hasiera emango diote artistek azaroan.

Asier Gozategik *Berrian*: «Sortzaile bat naizen aldetik, udako kanta bat egitea ez da helburua, berez datorren gauza bat da. Azken urteotako joera bihurtzen ari da udako abestia zein izango den uda hasi aurretik esatea. Komunikabideen bidez inposatu nahi duten estrategia izan ohi da (...) Badira preseski udako abestia izatea bilatzen duten taldeak, baina merkatuko arau horietan sartzen hasten bazara ez da gauza onik aterako. Musika sentimenduekin egiten da, eta ez buruarekin».

Mariasun Landak *Nabarra aldizkarian*: «Haur- eta gazte-literaturan bitartekari bat dago irakurlearen eta egilearen edo liburuarren artean. Helduenean, ez. Bitartekari horrengan, modu ezkutuan edo nabarmenean, ideologia bat dago. Helduak beti pentsatu izan du haurrak ezin duela nahi duena irakurri. Helduak kontrolatu egin nahi du haurrak zer irakurri behar duen (...) Bestalde, gaur egun dagoen psikologizazio-giro horretan, haurrentzat bide errazetan eskaintzera jotzen dugun».

Kaosaren harmonia lirikoa

Caótica Ana, Espainia, 2007. Zuz: Julio Medem.
Akt: Manuela Vellés, Bebe, Nicolas Cazalé, Charlotte Rampling, Asier Newman, Lluís Homar. 118 m.

Bagenekien ez zela film erraza izango, oraingoan ere Medemek subkontzientearen eta ametsen muga ezkutatuan arakatuko zuela. Gure subkontziente kolektiboari buruzko fabula feminista izango zela abisatu zigun zuzendariak, eta emozionalki harrapatuko gintuela. Horretarako, Medemi duela urte batzuk hil zitzaion arreba Anaren omenez egindako pelikulak lengoia sinbolikoa darabil, eta protagonistaren bidaia erreala eta hipnosi saioen bidez denboran eginiko bidaia uztartzen ditu. Sexu esplizituak *Lucía y el sexo* ekarri digu gogora eta amodiozko istorio tragikoak berriz *Los amantes del círculo polar*, baina hau ez da amodio istorio bat. Ez da istorio soila, behintzat, harago baitoa: Anaren pertsonaiaarekin, historian zehar gizonak emakumeei eragindako sufrimenduaren ordezkari eta sinboloa eraikitzen du filmak. Emakumeak dira benetako protagonistak, bidegabekeriei aurre egin eta bizirauteko gai direnak.

Eta errealitate gordin hori irudikatzeke, Saharako gatazka eta Irakeko guda presente dituen errea-

litate krudela azaltzeko, poesia da nagusi.

Poesia dario

Caótica Anari, irudietan, paisaietan, koloreetan, musikan, aktoreen antzezpenetan... Ia bi orduz, Anak esku har ziezagun utzi dugu, eta Ibizara eta New Yorkera eramantzen gaitu, aspaldiko garaietara, bortizkeriaz eta gorrotz beteriko uneetara... Anaren kaosak, pixkanaka bere harmonia bilatu du, zentzua hartzen joan da. Eta berekin batera gorrotoa, maitasuna, poza, tristura, amorruta sentitu ditugu. Medemek arrazoi zuen: emozionalki harrapatu gaitu, eta hori, gaur egungo zineman, ez da gutxi.



<http://www.argia.com/argia-astekaria/2009>
helbidean, Julio Medemi egindako elkarrizketa.

MIKEL GARCIA

Jaso astero **ARGIA** etxean



Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara

Izen deiturak:

Helbidea: Posta kodea: Herria:

Herrialdea: Jaioteguna:

N.A./I.F.K.: _____ - Tel./Faxa: e-posta:

Ordainketa mota: Bankuz
 Taloez
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L.ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik

Banku edo aurrezki kutxa:

Titularra: N.A./I.F.K.:

Titularraren helbidea: Titularraren telefonoa:

Entitatea: _____ Sukurtsala: _____ K.D.: _____ Kontu zenbakia: _____

Data: Sinadura:

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: 142 PK. / 20160 Lasarte-Oria -Gipuzkoa-

Aukeratu ongi etorri oparia

“Ardibidez” mahai-jolasa

“888 txiste” liburua

“Mokogorri” puzzleak

%25eko beherapena
ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:
2007ko prezioak

130 € Hego Euskal Herrian
160 € Ipar Euskal Herrian

ARGIA

ARGIA

37